

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

1
positibo berri
2.264
positibo guztira*

1.577
hildako EAEn
18
UCIn, EAEn

*Hernanin 60, Astigarragan 20

NAFARROAN

6
positibo berri
5.335
positibo guztira
9
UCIn

Sendatuak EAE 17.366, Nafar. 7.073

Txistulariek eta bertsolariek girotuko dute Ereñotzu, betiko festarik gabeko San Antonio egunean

Asteburu honetan ziren ospatzekoak, Ereñotzuko San Antonio jaiak; baina gainerako tokietan bezala, ez dira ospatuko aurtengoan. Igandean, dena den, auzoa girotuko dute, eta balkoiak apaintzeko deia ere luzatu dute.

EREÑOTZU SAN ANTONIO JIAK

Ekintzaz eta ospakizunez betetako asteak izaten dira hauek, Ereñotzun; urteko mugituenetakoak. Ereñotzuko Mendi Lasterketak, maiatzaren 31n, eta Euskal Herriko Bola Txapelketaren final haundiak, ekainaren 6an, egin behar zituzten beroketa lanak, aste honetako San Antonio jaietarako. COVID-19ak eragindako osasun alarma egoerak, ordea, bertan behera utzi ditu denak; bai kirol ekintzak,

eta baita San Antonioak ere.

Ez dituzte betiko moduan ospatuko auzoko jaiak, aurtengoan; eta ez da izango dantza emanaldirik, kontzerturik, herri kirol saiorik, pelota partidurik edo bestelako ikuskizunik. Baina urteroko moduan ospatu ezinda ere, egun berezia da larunbatekoa, San Antonio eguna, eta ez dute «oharkabeen pasatzerik nahi», Jai Batzordeak nabarmendu duenez.

Eta horregatik, auzoa girotu nahian, beste modu batera os-

patzeko gonbitea luzatu diete, ereñotzuar guztiei.

Balkoiak kolore biziz

apaintzeko gonbitea, denei Txistularien dianak esnatuko du San Antonio eguna, Ereñotzun, doinu alaiekin giro ona zabaltzeko asmoz. Eta ondoren, bertsolariak ere ibiliko dira auzoan barrena, errimak harituz umorea eramateko, txoko guztietara. Elkarrekin abiatuko dira Epeletik, 09:00etan, Hernaniko txistulariak, eta Asier Azpiroz eta Unai Agirre bertsolariak.

Txistu doinuekin zein bertsoekin gozatzeko gonbitea luzatu die Jai Batzordeak auzotar guztiei, eta eskaera bat ere egin die: etxeetako balkoiak, kolore biziz apaindu ditzatela, asteburu berezarako. **K**



Txirrita eskolako ikasleek ere, ezingo dute urteroko emanaldia eskaini.

Asinkoko gimnasioa erabili daiteke dagoeneko, baina aldi berean bi lagunek bakarrik eta ordua eskatuta

Internet bidez hartu behar da txanda, Goizuetako gimnasioa erabiltzeko. Eskolako eta Lubineko frontoiak ere, herritar guztiek erabili ditzakete, gehienez 20 lagunek kontaktu fisikorik gabe, eta aldez aurretik txanda hartuta.

URUMEA KIROLA

Herriko hainbat kirol instalazio dauzkate erabilgarri goizuetarrek, deseskalatzearen hirugarren fase honetan. Dagoeneko erabili dezakete Asinkoko gimnasioa, baina baldintza eta muga batzuk errespetatuz.

Gehienez ere bi lagunek erabili ahal izango dute aldi berean, egunean ordubetez. Horretarako, txanda eskatu beharko da, internet bidez, helbide honetan: labur.eus/0r18j. Goizeko 09:00eta-

tik gaueko 22:00etara hartu daiteke ordua, posta elektronikoa ere emanda.

Horrekin batera, erabilgarri daude Xalto eskolako eta Lubineko frontoiak ere, herritar guztientzat, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara. Frontoietan aritzeko ere, txanda eskatu beharko da, udaletxera deituta: 958 51 40 06.

Kirola egiteko erabili behar dira frontoiak, eta gehienez 20 lagun egon daitezke, kontaktu fisikorik gabe. Entrenatzailea ez



Asinkoko gimnasioa erabili dezakete berrir, goizuetarrek.

den pertsona batekin joan daiteke, eta erabili ondoren, garbitu eta desinfektatu behar da.

Ikastaroetan izenematea, Hernanin eta Astigarragan Astigarragan eta Hernanin ere

zabaldutako kiroldegia, aste honetan; eta ikastaroak jarriko dituzte martxan, udarako. Hernanin, bost ikastaro eskainiko dituzte aire librean (Ave Maria parkean, igerileku irekietako belardian edota herrian barre-

na), ekainaren 15etik 30era: Martxan jarri, Zirkuituak aire librean, Hernanin barrena, pilatesa eta zumba. Guztietarako, bihar arte eman daiteke izena, 943 55 21 85 telefonoan edo kirola.hernani.eus web orrian.

Astigarragan, berriz, haur eta nerabeentzat, Jolas Txiki eta Multikirola eskainiko dute udaran, eta baita jump fit, zumba, aireko gimnasia, ziklo indoor eta bungee air fit ere. Helduentzat ere, izango dira ikastaroak uztailan, abuztuan eta irailan: aireko pilatesa, pilatesa, gimnasia, hipopresiboak, zumba, strong zumba, aerofit, body weight, jump fit, ziklo indoor, TRX eta bungee air fit. Guztietarako, etzi arte eman daiteke izena, kiroldegian. Eta datorren astelehenean egingo dituzte zozketak. **K**

OTSAIHEN
Garagardoa baltik

ESKAINITZA
24 botilako kaxak: 50€
Nahieran egin ditzakezu kaxako nahasketak: Horia, IPA eta beltza
Bidalketak etxera, Gipuzkoa osoan
Eskaerak egiteko:
otsaihen@gmail.com 623 229 297

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

olai zola
Sagardotegia

Sardotegiko menua

Txorizua sagardotan
Ensalada
Kostilla
Etxeko postrea
Sagardoa eta ardoa
22 €

Udako menua

Txorizua sagardotan
Ensalada
Kostilla
Etxeko postrea
Sagardoa eta ardoa
22 €

Osinaga oizoa, 38. Hernani Tel. 943 33 67 31 / 690 696 484

EGURALDIA
GAUR
 Giro lasaiagoa izango dugu gaur. Laino askorekin hasiko dugu eguna kostaldean, eta baliteke euri pixka bat egitea. Barnealdean, berriz, ateri eutsiko dio. Iluntzean egin dezake euria berriro. Iparraldeko haizea ibiliko da. **Min.12° / Max.19°**

BIHAR
 Giro nahasiagoa bihar. Ateri eutsiko dio goizean, baina ezegonkortzera egingo du arratsaldean, haizea ipar-mendebaldera aldatu eta indartzearekin batera. Euritara joko du orduan, bereziki kostaldean, eta ekaitzak ere jo dezake. **Min.13° / Max.19°**

ARGITARATZAILEA
DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK
 Hernaniko Udala
 Astigarragako Udala
 Asteazkoko Udala
 GOIZUEKAKO UDALA
 ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Bertso zahar zein berrien emanaldia online, Agirre anaiek

Bertsotan ariko dira Unai eta Eñaut Agirre gaur, arratsaldeko 18:00etan hasita, Hernaniko Udalaren Youtubeko kanalean.

HERNANI KULTURA

Gaur izango du aste honetako aurreneko hitzordua, Hernaniko Udalak online eskainitako kultur egitarauak. Eta oraingoan, bertsoa izango da protagonista, Unai eta Eñaut Agirre anaiei eskutik. Arratsaldeko 18:00etan hasita, emanaldia eskainiko dute Udalaren Youtubeko kanalean. Lotura zuzena aurkitu daiteke Hernaniko Udalaren webgunean (hernani.eus), eta baita kronika.eus web orrian ere, albiste honekin batera.

Bertso zahar eta berrien emanaldia eskainiko dute Agirre anaiek, bertan: *Bertso zahar*



Eñaut eta Unai Agirre, joan den urteko Bertsolatan eskaini zuten emanaldian.

eta berriak, auskalo zeinek eginak. Antzeko emanaldirik eskaini dute biek, lehenago ere, hainbat tokitan. Joan den urteko urrian, Iparragirre sagardotegian aritu ziren *Auskalo zeinek jarriak* ikuskizunarekin; eta abenduan, Biterin eskaini zuten emanaldia, Jexux Mari Irazu eta Imanol Kamioarekin batera, Bertsolataren barruan.

Gaurko emanaldia, baina,

laburragoa izango da. Gehienez ere, ordu laurdeneko iraupena izango du, Kultura Online programazioko guztiek bezala.

Nagore Legarretaren erakusketa, ostiralean

Aste honetan bertan, beste zita bat ere izango du online programazioak: Nagore Legarreta argazkilariaren erakusketa jarriko dute ikusgai etzi, 19:30etan. **K**

85garren urteurrena dute gaur, Alkoholiko Anonimoek

Ospakizunarekin bat egin nahi izan du Hernaniko Alkoholiko Anonimoen Santa Barbara Taldeak, eta gogorarazi du ateak zabalik dauzkala.

HERNANI ALKOHOLIKO ANONIMOAK

Urteurren borobila izango dute gaur, Alkoholiko Anonimoek. 1935eko ekainaren 10ean sortu zen, Akron hirian, Ohion, Amerikako Estatu Batuetan. Mundu mailan ari dira ospatzen urteurrena, eta horrekin bat egin nahi izan du Hernaniko Alkoholiko Anonimoen Santa Barbara Taldeak. «Urte guzti hauetan, milioika lagunek lortu dute alkoholismoaren gaixotasuna etetea, Alkoholiko Anonimoen berreskuratzeko programari esker, erakundearen 12 tradizioekin indartuta», nabarmendu dute.

Akronen sortu zen taldetik abiatuta, milaka eta milaka talde osatu dira mundu osoan, eta 50eko eta 60ko hamarkadetan hasi ziren sortzen Euskal Herrian. Hernaniko taldea, Santa Barbara izeneko, 1968ko urriaren 15ean sortu zen; eta Gipuzkoan, 36 talde daude orain.

Talde horietan, «esperientzia pertsonalak partekatuz» egiten dituzte, «guregana datorrenaren anonimosasuna gordeta, horretan oinarritzen baita errekupe-razioa», azaldu dute.

«Alkoholismoa ez da bizioa, gaixotasuna da»

Santa Barbara Taldeak gogorazazi du, alkoholismoa ez dela «bizioa, gaixotasuna baizik: sendaezina, progresiboa eta heriotza eragiten duena, baina eten daitekeena». Eta azaldu dute, alkoholikoak bilatzen duena dela «edan gabe egotea, eta alkoholismoaren gaixotasuna daukaten beste pertsona batzuei laguntzea, haiek ere lortu dezaten ez edatea».

Nabarmendu dute, Alkoholiko Anonimoak ez dagoela lotuta inolako sektarekin, alderdi politikoeekin edota instituzioekin. «Bazkideen aportazioekin baka-rrik sostengatzen da, gure tra-

dizioek hala eskatzen digutela-ko», azaldu dute.

Terapia saioak astean bitan, Sandiusterriko egoitzan

Sandiusterrin dauka egoitza Hernaniko Alkoholiko Anonimoen taldeak, eta bertan egiten dituzte terapia bilera itxiak, astean bitan: astelehen eta ostiralean, 19:30etan hasita. Ostegunetan, errekupeazio programaren berri ematen dute, 19:00etan; eta asteazkenetan, alkoholikoen sende eta lagunekin egiten dituzte bilerak, 18:00etan.

Aurrenekoz gerturatzen dena, animatzen dute edan gabe mantentzeko prueba egitera, beraiek emandako aholkuak jarraituz; eta kontatzeko gero. «Bakoitza libre da onartzeko edo ez; guk ez dugu inor erreklutatzen, baina ateak zabalik izango ditugu beti, nahi dutenentzat».

Alkoholarekin arazoak dituela uste duenari, gomendatu diote haiekin harremanetan jartzeari: 629 141 674 edo 943 33 11 03 (566 luzapena) telefonoetan, edo a.a.g.santabarbara@gmail.com helbide elektronikoan. **K**

Ekainaren 19ko zitari begira, bilera gaur Biterin

Buruntzaldeako bilera deitu du Eskubide Sozialen Kartak, 18:00etan, ekainaren 19ko mobilizazioa antolatzeko.

HERNANI-ASTIGARRAGA EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA

Datorren ostegunetan, ekainaren 19an, mobilizatza deitu ditu herritarrek, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak, *Etxean geratu naiz, orain kalera aterako gara* lelopean. Eta mobilizazioa antolatzeko, Buruntzaldea mailako bilera deitu dute gaur,

Hernaniko Biteri kultur etxean, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Bilera irekia izango da, eta deia luzatu diete guztiei, «Buruntzaldeako herritarrok mobilizazio hau antolatu eta herriaren ahotsa kaleetan entzun dadin bermatzeko». Norbanako zein kolektiboak deitu dituzte bertara: «gure eskubideak aldarrikatzeko ordua da!», nabarmendu dute.

Bizitzari lehenetasuna ematea eskatu dute, besteak beste, osasuna eta zerbitzu publikoak indartuz, lana berrantolatuz, eta exijituz eskubide guztiak guztientzat izatea, eta aberatsek ordaindu dezatela. **K**

Bigarren saioa gaur, merkatarientzat

HERNANI BERRIAK-UDALA

Gaur egingo dute bigarren saioa, Hernaniko merkatariei eta ostalariei zuzendutako elkar ikasketarako. Udalak eta Berriak elkarrekin antolatuta, Zoom programaren bidez egingo dute, 14:15etatik 16:00etara, gaztelaniaz. *Berrikuntza mapa* izeneko landuko dute, Harago Aholkularitzako Aran Erasunekin; eta doakoa da, baina aurrez eman behar zen izena, gurutze-a@hernani.eus helbidean.

Miguel Indurain beka eskatzeko, orain

GOIZUETA-ARANO KIROLA

Miguel Indurain bekaren deialdia zabaldu du Miguel Indurain Fundazioak, Nafarroako kirolarientzat; eta ekainaren 16ra arte egin daitezke eskaerak. www.fundacionmiguelindurain.com web orrian dago, deialdiari buruzko informazio guztia. Aurtengoan, 270.000 euro bideratu dituzte Kirol Olinpikoa, Paralinpikoa, Ego-kitua, Euskal Pilota eta Herri Kirolak programetarako. Joan den urtean, 152 kirolarik jaso zuten laguntza; tartean, Iker Salaberria esku pilotari goizuetarrak. Aurreko urteko emaitzen arabera banatzen dira bekaren dirulaguntzak.

Hauteskunde mahaian zozketa, bihar

HERNANI UDALA

Ezohiko Plenoa egingo du Hernaniko Udalak, bihar 08:15etan, uztailaren 12ko hauteskundeetarako mahaikideak izendatzeko.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Oinarritzko Lanbide Heziketa

ELEKTRIZITATEA
ELEKTRONIKA

INFORMATIKA
KOMUNIKAZIOAK

AURREMATRIKULA
2020.06.01 - 2020.06.19

943 46 01 45 / 610 787 001
info@fpmartutene.org
fpmartutene.org